

Zangoza / 2024

# KULTUR AGENDA

## ekaina



Ayuntamiento de  
Sangüesa/Zangoza



CONSEJO REGULADOR DE LA CULTURA  
PALACIO DE VALLESANTORO



Nafarroako  
Gobernua



NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea

**Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia:** astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoko ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Tfnoa:** 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es)

Facebooken eta [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu: [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es)

 [www.facebook.com/culturasanguesa](https://www.facebook.com/culturasanguesa)  [www.instagram.com/culturasanguesa](https://www.instagram.com/culturasanguesa)

## Karmengo Entzunaretoa

**Sarrerak hartzea: ekainaren 4tik aurrera** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrien bidez.

**Telefonoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan:** Karmengo Entzunaretoako txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubate lehenagotik. **Telefonoa:** 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarria izango da.

**Beharpenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioretan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

### ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatuerik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

### ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gunea bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuekin [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea honakoetan kontsultatzen ahal duzu: [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es)

# KULTUR AGENDA

## ekaina



- 1 La Euskararen Eguna 8. Orr  
 La Erakusketa «Artea Oinez» (ekainaren 2a bitarte) 4. Orr  
 La Erakusketa «Un bosque» (ekainaren 23a bitarte) 4. Orr

### 2 Ig

- 3 Lu Jaietako lehiaketaren epearen amaiera 10. Orr  
 4 As Liburuaren aurkezpenak «Beroa» 10. Orr  
 5 Az Zuretzako antzerkia. «Los finales no escritos» 7. Orr  
 6 Og Musika Eskolaren, Gaiteroen eta Big-Band-en Kontzertua 9. Orr  
 7 Os Dantza. Dantza tailerretako ikasleen erakustaldia 6. Orr  
 8 La  
 9 Ig Amateur antzerkia. «Las galas del difunto» 5. Orr

- 10 Al  
 11 As  
 12 Az Zuretzako antzerkia. «Zer daramagu emakumeok poltsoan?» 8. Orr  
 13 Og Erakusketa «San Salvador, berraurkitzeke dagoen eliza» 5. Orr  
 (abuztuaren 25a bitarte)  
 Og Fanfarrearen, Musika Eskolako orkestraren eta Luis Gil Ikastetxeko ikasleen kontzertua 9. Orr

- 14 Os  
 15 La  
 16 Ig Musika. «Broadway: 100 años de teatro musical» 6. Orr

- 17 Al  
 18 As  
 19 Az  
 20 Og Musika Eskolako Konboen kontzertua 9. Orr  
 21 Os  
 22 La Musika Eskolako fanfarrearen kontzertua 9. Orr  
 Zangozako Ikastolako ikasleekin batera

### 23 Ig

- 24 Al  
 25 As  
 26 Az  
 27 Og  
 28 Os Musika Eskolako urteurrenaren ikuskizuna. «Ibaiondo» 9. Orr  
 29 La  
 30 Ig Albreteko Enrike II.a «Zangotzarra» 10. Orr  
 lehiaketaren epe-amaiera

## Erakusketak



### «Artea Oinez»

#### EKAINAREN 2RA BITARTE

Nafarroa Oinez ekitaldiaren testuinguruan, Zangozako Ikastolak hainbat artistaren lanak biltzen dituen «Artea Oinez» erakusketaren 27. edizio liluragarria aurkezten du. Esparru artistikoan eragina duten ahots ugari hartzen dute edizio berri honetan. Ekitaldi horrek aniztasuna eta sormen artistikoa ospatzen dituen esperientzia aberasgarria izango dela agintzen du.

**Antolatzaileak:** Nafarroa Oinez 2024-Nafarroako Ikastolen Federazioa.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko erakusketa Aretoa.

### «Un bosque»

#### FÁBRICA DE ARTE NUEVO

MIKEL BELASCOAIN ETA HOLLY MIRANDA

#### EKAINAREN 23RA BITARTE

«Baso bat» proiektuak fantasia, irudimena eta magia berreskuratzen ditu, gure beldur kolektiboak gainditzeko antidoto gisa. Mikel Belascoain artista nafarra (Pintura eta Eskultura) eta Holly Miranda artista iparramerikarra (Musika) XX. mende hasierako mugimendu artistikoetan oinarritu dira, baita Espainiako abangoardia artistikoen tradizioan ere, Picasso eta Miró kasu, eta baita Lewis Carroll («Alizia mirarien herrian») bezalako idazleen unibertso fantastikoan ere. Proiektua burdinazko eta zurezko 7 eskultura-piezaz osatuta dago. Pieza horiek asmatu-rik mitologia bat irudikatzen dute,

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko lorategia.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernuia.

## Erakusketak



«San Salvador, berraurkitzeke dagoen eliza»

**EKAINAREN 13TIK ABUZTUAREN 25ERA**

Erakusketak Zangozako San Salvador elizaren ondare-balioa hurbildu nahi du argazki eta taulen bidez. Eliza hori Interes Kultureleko Ondasun izendatu zuten 2001ean, eta urte horretan itxi zuten publikoarendako, koruaren egitura-arazoengatik.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeke erakusketa Aretoa.

**Lorategiaren eta erakusketaren ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

## Arte Eszenikoak Karmengo entzunaretoan



**AMATEUR ANTZERKIA**

«Las galas del difunto»

**Egilea:** Ramón María del Valle Inclán.

«ANTSA OIBARKOA ANDREA» ANTZERKI-TALDEA

**IGANDEAN, EKAINAK 9**

**Zuzendaria:** Mercedes Castaño.

**Antzerkilariak:** Mikel Aldunate, Tere Ayesa, Natasha Castañeda, Tomás Gistau, Alberto Goñi, Beatriz Olagüe, Ilu Santesteban, Txomin Senosiain, Begoña Sesma.

**Narratzailea:** Ángel Zoco.

«Hildakoaren galak» gerraren aurkako alegatua da, Kubako gerraren aurkakoa, hain zuzen ere. Umorea eta tragedia nahastuz, Valle Inclanek «esperpentoa» asmatu zuen: groteskoa eta zentzugabea dena, errealitatea artistikoki puztua eta egiazkoa aldi berean ikusteko modua, berealdiko egiak esanez eta astakeria xeblebrenei barre eginez.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 19:00.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**Aldez aurreko sarrerak:** 5 €. **Txartel-leihatilan:** 6 €.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak Karmengo entzunaretoan



## DANTZA

**Zangozako Dantza tailerretako ikasleen erakustaldia FUERADELEJE konpainiak zuzenduta.**

**OSTIRALEAN, EKAINAK 7**

**I. taldea:** 17:30ean.

**II. taldea:** 18:30ean.

**III. taldea:** 19:30ean.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**Sarrera doan** edukiera bete arte. Gonbidapenak alde zurreratik hartu behar dira. Sarrerak Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta, [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrietan.



## MUSIKA

**«Broadway: 100 años de teatro musical»**

JAZZY LEAP. Nafarroako Ganbera Abesbatzaren Elkartea

**IGANDEAN, EKAINAK 16**

**Zuzendari artistikoa eta moldatzaile nagusia:** Andoni Arcilla Ballabriga.

**Bakarlariak:** Alberto Arteta Unanua (saxofoia), Luis Giménez Álvarez (gitarra), Oscar Muñoz Mendinueta (baxua), Juan Manuel Urriza Razquin (bateria), Andoni Arcilla Ballabriga (pianoa eta ahotsa).

«Broadway: 100 urteko antzerki musikala» proposamenak historiako musikal nagusien ibilbidea planteatzen du, generoareen hasiera 1927an «Show Boat» musikalaren estreinaldian kokatuz. Urte horretatik aurrera bidaia bat hasiko da jazzaren aroan, Broadwayren urrezko aroan, rock musikalaren sorreran eta 80ko hamarkadako «megamusikaletan» barrena, Broadwayra hip-hop bezalako generoak eramaten dituzten proposamen berrietara iritsi arte. Ikuskizunak, gainera, elementu musikalkanpoko elementuak ditu, ikus-entzunezko proiektzioen bidez, interpretatutako abestiak testuinguruan jartzen lagundu eta musikal amerikarraren atzera begirako hau aberastuko dutenak.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 75 minutu gutxi gorabehera.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea.

**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €. **Txartel-leihatilan:** 5 €.





# Zuretzako antzerkia



## «Los finales no escritos»

### LiterArte Jaialdia

PRODUCCIONES MAESTRAS

### ASTEAZKENEAN, EKAINAK 5

**Dramamagintza:** Ana Maestrojuán, Iratxe Úriz, Miguel Goikoetxeandia eta Yolanda Almeida.

**Zuzendaria:** Ana Maestrojuán.

**Antzerkilariak:** Izaskun Lasarte eta Ángel García Moneo.

Amaierek ez lukete idatzita egon behar... edo bai. Denok amesten dugu amaiera zoriontsu batekin, baina ez dugu uste amaiera hau dakarrenik. Bizitza baten amaiera? Maitasun baten amaiera? Edo apika sufrimendu baten amaiera?

Aurten LiterArte Jaialdiak, izenburu honekin, lau istorio biltzen ditu, axolagabe utzi ez gaituzten lau liburutatik abiatzen direnak.

**Yolanda Almeidak**, Kim Young-Haren «Auskalo bihar hemen jarraituko dugun» eleberritik abiatuta, gogoaren zokoetan zehar ibilaraziko gaitu La gallinita ciega proposamenean.

**Iratxe Urizek**, Annie Ernauxen «Emakume izoztua» irakurri ondoren, bihotza jarriko dio Otra mujer helada lanari.

**Ana Maestrojuanek**, Emanuel Carrereren «Aurkaria» lanetik abiatuta, La última cena lanarekin senar-emazteen egunerokotasuna zulo batetik begiratzera gonbidatuko gaitu.

Eta azkenik, **Miguel Goikoetxeandiak**, Victoria Masen «Emakume eroen dantza» lanarekin, los finales no deberían estar escritos lana aurkeztuko digu.

Lau dramagile elkarrekin, «Los finales no escritos» lanean, gizakiaren sakonera garamatzaten lau istorio ehuntzen dituztenak.

**Ikusleekin topaketa**, taldearen funtzioaren ondoren: Egile bat eta zuzendaria.



## Zuretzako antzerkia



**Zer daramagu emakumeok poltsoan?**  
(Euskarazko narrazioa)

INÉS BENGOA

**ASTEAZKENEAN, EKAINAK 12**

Zer daramagu emakumeok poltsoan? Aitortu behar dut nik neuk ere ez dakidala zer dudan poltso barruan. Beraz, egun batean, arnasa sakonki hartu ondoren poltsoa hartu eta mahaiaren gainean hustu nuen. Badakizue zer topatu nuen? Zatozte, zatozte entzutera eta den-dena kontatuko dizuet.

**Iraupena:** 60 minutu. **Ordua:** 19:30.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/  
Kultura-etxea.

**Sarrera doan** edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Sarrerak erreserbatu ahalko dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefonora deituz edo emailerik infocultura@sanguesa.es helbidean.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernuak.

## Euskararen Eguna

**LARUNBATEAN, EKAINAK 1**

**09:00etan** Dianak.

**11:30ean** Dantzariak.

**12:00etan** Haurrendako tailerrak eta Mintzodromoa.

**13:30ean** Ekitaldia.

**15:00etan** Herri bazkaria.

**17:00etan** Katxi Txaranga.

**20:00etan** Muxutruk! Erromeria.

**23:00etan** DJ Mortx.

Ekintzak Arkupeetan izanen dira.

Egunean zehar barra eta pintxo postua egonen da.

**Antolatzailea:** Bi Haizetara.





# Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



**Eskolaren, Gaieteroen  
eta Big-Band-en Kontzertua**

**EKAINAK 6, OSTEGUNA**

**Ordua:** 19:30

**Lekua:** Eskolaren atzealdea,  
parkearen ondoan.



**Fanfarrearen, Orkestraren eta Luis  
Gil ikastetxeko ikasleen kontzertua**

**EKAINAK 13, OSTEGUNA**

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Eskolaren atzealdea,  
parkearen ondoan.




**Fanfarrearen kontzertua Zangozako  
Ikastolako ikasleekin batera**

**EKAINAK 22, LARUNBATA**

**Ordua:** 12:00.

**Lekua:** Zangozako Ikastolako  
jolastokia.



**Ibaiondo**

**EKAINAK 28, OSTIRALA**

Musika eskolaren 50. urteurrena  
ospatzeko sorturiko ikuskizuna.

Udal Banda Elkarteak, Nora Abesbatzak,  
ikasleek eta ikasle ohiek parte hartuko  
dute.

**Ordua:** 21:30.

**Lekua:** Luis Gil Ikastetxeko jolastokia.

## Lehiaketak



### Zaindariaren Jaietarako Lehiaketak 2024

- 2024ko Zaindariaren Jaietako Kartel Lehiaketa.
- «Zangozako Hiria» Haur-literaturako Lehiaketa. Hitz lauz edo bertsoz.

**Bi lehiaketetarako aurkezteko epea: ekainaren 3ko** 14ak arte. Oinarriak eskuragai Kultura-zerbitzuan edo [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) udaleko web-orrian.

### Enrike II.a Albretetako, «Zangotzarra», XXIX. Ikerkuntza- Lehiaketa

Lanak Zangoza eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean egingen da 2024ko **ekainaren 30a** (barne) baino lehenago. Aurkezturiko lanak Zangotzarra Aldizkarian argitara eman litezke.

**Oinarriak:** Eskatu honako helbidean [www.zangotzarra.es](http://www.zangotzarra.es)

**Antolatzailea:** Henrike II.a Albretetako Kultura-taldea.



## Liburuen aurkezpenak

### «Berno»

**Egilea:** Juan Luis Larraza.

**ASTEARTEAN, EKAINAK 4** (aurkezpena elebitan)

«Berno» eleberri historikoa da, euskaraz idatzia, eta XIV. mendeko gizarteak Arañaz ibarrean bizi izandakoa jasotzen du: ibarreko 17 herriak Etxarriko bastioiaren inguruan bildu eta elkartzen dira, Etxarri Aranatzen sorrera sortuz.

Bere pertsonaiak Nafarroa eta Euskal Herri osoan zehar ibiltzen dira eta Zangoza eta bere inguruarekin ere harremana dute. Borrokek, abenturek, maitasunek eta desadostasunek, garai hartako bizitza nolakoa zen ikusten laguntzen diguten tresna erakargarri bihurtzen dute eleberria.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko hitzaldi aretoa.

